

# INGUMATXO GEZNARIA

*Otsalar*

Nire leioko liliartera,  
etorri berria,  
lorarik-lora egurastera  
ingumatxo ikusgarria.  
Iduritzen zait agertu dala  
egaztizko lili ejerra  
nire biotz lilluratua  
maitekiro alaitzera.

Bere ega dantzaria,  
margo parerik gabea.  
Gauza orren txanbeliña,  
nola asmatu al zenun Jauna ?  
Ibilkeria du ain ariña  
zirrikatzen duena ortzia ;  
zalantzarik gabe da  
jolas-loretzat egiña.

Duen ekitaldi laburra,  
liliz-lili, aldakorra :  
orain begonia, gero krabeliña ;  
jeranioan du tankera berria.  
Ingumatxo maitea :  
nire leioan lorea,  
zelai-basoetan urrezko orria,  
zeruan aingeru pitxia.

... egaztadaz, kulunka,  
printza dizdiratsuak dariola  
aldendu zaida inguma  
leioetan zear, lorenz-lorenzka...  
Arkituko al duk, bera ;  
nire biotzeko lili kuttuna,  
Kupido'k gezitu zaidana  
eta, nire geznaz, emaiok pa.